

Iñigo Monreal - Txalapartaria

«Txalaparta festako saioetan ikusten da gero eta gehiago dagoela txalaparta bere hutsean»

IÑIGO MONREAL. «errebotez» hasi zen txalaparta ikasten. Gero, tabernari lana utzi eta gaur egunean erabat txalapartara dedikatzen da. Bide luzea egin du. Juan Mari Beltran izan du maisu eta txalapartari zaharretan fijatuta da gehiena. Esperimentu zalea bai, baina, oinarria, *ttakuna* eta *herrenaren* arteko joko horri eutsita. Etorkizunerako proiektuak baditu buruan, baina, berak dionez, arinago gehiegi definitu gaita Ander Barrenekarekin ibiltzen da.

Noiz eta nola sartu zinen txalapartaren munduan?

Ni erdi errebotez hasi nintzen txalaparta ikasten. Nere anaie-tako bi ari ziren lehendik, Migel eta Patxi, eta haiekin hasi nintzen, 16-17 urte nituela. Gero anaiek utzi egin zuten eta nik jarraitu. Denera, 18 urte inguru daramazkit txalaparta munduan. Txalaparta jotzeaz gain, erakusten ere aritzen naiz, Andoain, Lezo, Oiartzun eta Ziburun.

Ze ibilbide egin duzu urte horietan?

Hasierako urte haietan *Zurpattetan* taldean ibili nintzen. Harkaitz Martinez, Xabier Amilibia, Sergio Lamuedra eta lauok osatzen genuen taldea. Asko ibili ginen. Geroztik, denetik egin dut: txalaparta dantzarekin, ipuiak eta txalaparta, diskoteketan jo dut (Bataplanen, adibidez), orain dela gutxi Europako *Break dance* txapelketan jo dugu, antzerkia ere egin genuen txalaparta bera gaia zela. Gospel koro batean ere jo dut, Kursaallean.


Ikusten da esperimentatzea gustatzen zaizula...

Beno, orokorrean txalapartari denak gara esperimental samarrak. Txalapartak denbora gubdan martxa handia hartu du, eta berritzeko aukera eta terreno asko dago. Behar bada, beste musikariek, saxofoillari batek, pianista batek, askoz zailagoa izango du gauza berriak egitea, lehendik ere asko egin delako.

Iñigo Monrealek 18 urte daramazki txalaparta munduan: plaza asko korritua da, disko askotan parte hartua, eta gaur egunean txalaparta irakasle ere bada.

«Denetik egin dut:

txalaparta dantzarekin, ipuiak eta txalaparta, diskoteketan jo dut (Bataplanen, adibidez). Orain dela *dance txapelketan* jo dugu, antzerkia ere egin genuen txalaparta bera gaia zela. Gospel koro batean ere jo dut».



Iñigo Monreal txalaparta erakusten dabil Andoain, Lezo, Oiartzun eta Ziburun. 75 ikasle ditu.

Diskografia aldetik, zein lan egin dituzu?

Juan Mari Beltranekin egin dako bi diskotan parte hartu dut txalaparta taldeko instrumentu bat gehiago dela. Hortik aurrera, gehienak kolaborazioak izan dira, eta dezentxe bai. Berrienetik hasita, Xabier San Sebastianen *Orai* diskoan. Albokako Lorus diskoan ere kolaboratu nuen, Kanarietako musikari buruzko disko batean Marivi Caborekin. Gorka Knor, Etzakit, Triki ta Ke...

Kanariak aipatu duzu. Izanazkarete, eta berriro deitu dizuete hilabete honetan joateko. Nola hartzen du jendeak kanpoan txalaparta?

Ba, guk hemen ezagutu dugunean hartu genuen bezala, gauza berezi bezala eta harri-duraz hartzen dute. Baina, hemen ere bai, eh. Oraindik ere, ezagutzen ez duen batek ikusten zaitu jotzen eta ohol azpiran begiratzen hasten da. Gero, gauza ezagutu ahala, behar bada magia pixka bat ere galtzen du. Nik esaten dut, proze-

su bat izaten dela: bi makil ikusi egurrari joka eta, lehenengo pentsamendua da, ba, hori ez da hain zaila izango. Jotzen ikusi eta *¡No! Ez, hain erreza ere igoal ez da!* Oso efektista izaten da, adibidez, itakun-ttakun-ttakun azkar-azkar jotzea, baina, hori ez da horrenbesterako, azkenean. Eta beste gauza asko daude askoz konplikatuegoak.

Adibidez?

Txalapartak azkeneko urteotan eboluzio txukuna jaso du,

eta hasierako erritmo binario huts hartatik erritmo konplejoak landu ditugu. Horretaz gain, erritmo berriak, zenbait musikatar moldatzeko erritmoak... horiek zailagoak dira. Gehienok entzuten dugun musikaren %95 edo txalapartaren erritmo berekoa da: lau-koa, binarioa behintzat. Horretarako ez da asko moldatu beharrik.

Badira, ordea, beste erritmo batzuk, Ezpatadantza erritmoa, fandangoa... batzuk irregularrak dira, besteak hirukoak, eta hirukoa biren artean egitea... Gauza horiek konplejoagoak dira. Egiten dira, eh, baina, konplejoagoak dira. Hori bai, zenbat eta erritmo konplejoagoa, orduan eta txalaparta lotuagoa dago normalean.

Trikitixa munduak ere, adibidez, transformazio prozesu handia izan du: instrumentu asko inguruan, musika estilo berrietara moldatu... eta orain badira hortik, nolabait, bueltan datozenak ere. Nola bizi du prozesu hori txalapartak?

Hori guri ere pasa zaigu, bai. Gauza asko probatu ditugu Txalaparta Festan bertan, eta ausardiarik behintzat ez zaigu falta izan gauza bereziak egiteko. Eta, piskanaka-piskanaka neri eta beste batzuei gertatu zaiguna da geroz eta gehiago disfrutatzen dugula txalaparta hutsarekin, txalaparta jotzeko momentu horretan. Eta zentzu horretan, nik uste dut txalapartariak txalapartari den arte hori ez duela galduko. Gainera, ikusten da Txalaparta Festan, larunbat gauean egiten diren saioetan, geroz eta gehiago dagoela txalaparta bere hutsean. Lagunduta askotan, baina, laguntza hori oso detaile txikiak izaten dira.

Garai batean ematen zuten ea zeinek egingo zuten gauzarik konplejoena. Eboluzio hori fortzatzea ere ez da ona, bere martxan utzi behar zaio. Hala ere, behar bada oraindik esperimentu arraroenak ez ditugu ikusi (dio sortu berri den txalaparta talde berri eta handi bati buruz. 12 txalapartarik osatutakoa da talde berri hau).